



Andoaingo Udala

Kodea:	2026AAH20015
Zk. / Nº	2026/1208
Data / Fecha	2026/04/24
Ebazpena / Resolución	

Alkatetzaren ebazpena

Ikusirik, 2026ko apirilaren 30etik maiatzaren 3ra, biak barne, ospatuko diren Sanakrutzetako jaien antolaketa batzordeak 2026-03-23ko datarekin aurkeztutako eskaera.

Ikusirik, Hezkuntza eta kulturako Teknikariaren txostena.

Horrenbestez, ondokoa

ERABAKI DUT

1. Onartzea, Andoaingo Udala eta Santakrutz jai batzordearen artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: 2026ko Santakrutzetako jaiak.

Dirulaguntza: 43.989€.

Partida: 1 0500.481.338.00.01 2026 (381 kodea).

Indarraldia: 2026-01-01etik 2026-12-31ra.

2. Hezkuntza eta Kultura lansaileko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3. Santakrutz jai batzordeari bidaltzea hitzarmenaren bi ale, Hezkuntza eta kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4. 2026ko apirilaren 30etik maiatzaren 4ra, biak barne, ospatuko diren Santakrutzetako jaien antolaketa batzordeak aurkeztutako jai egitaraua eta aurrekontua onartzea.

5. Onartutako dirukopuru honen %60, hau da, 26.393,40€ Santakrutz Jai Batzordeari ordaintzea onartzea. Jai Batzordeari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatirengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko litzateke konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko lukete.

6. Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, jaietako memoria, likidazioa eta bere faktura egiaztagarriak, hitzarmena sinatzen den egunetik kontatzen hasita sei hilabeteko epean aurkeztu beharko dituzte, eta txosten teknikoaren ondoren ordainduko da.

7. Kontuan izan behar dituzten sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko da, eta jai batzordeko ordezkariak sinatuta egon beharko du. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

8. Eguraldi txarra eginez gero, Ondarreta Herri Ikastetxeko estalpea eskatutako jardueretarako erabiltzeko baimena ematea.

9. Santakrutz jai batzordeari jakinaraztea, Ondarreta Herri Ikastetxeko estalpea erabiltzeko baimena indarrean dauden arauak betetzeari baldintzatuta dagoela, eta abenduaren 30eko 42/2010 legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzea, batez ere 7.D atala, eskoletan erretzearen debekuari dagokiona.



Andoaingo Udala

Bestalde, Ondarreta Herri Ikastetxeko estalpea erabilera bakoitzaren ondoren patioa garbia utzi beharko dute.

10. Jai batzordeari jakinaraztea ere debekatua dagoela lehergai edo piroteknikako gai arriskutsuak erabiltzea, ez badituzte Euskal Erkidegoan piroteknia artifiziozko ikuskizunak arautzen dituen, 1998.10.20an EHAOan argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren irailaren 22ko 240/1998 Dekretuaren I eranskinak ezarritako baldintzak betetzen.

12. Santakrutzetako jaien egitaraua eta behar zehatz guztien kopia Obra eta Zerbitzuak eta Udaltzaingoa lantsailera helaraztea.

13. Akordio honen berri ematea jaien antolaketa batzordearen ordezkariari, eta erabaki honen berri izan bezain laster, aipatu ordezkariari eskatzea, kultura, Udaltzaintza eta Obra eta Zerbitzuetako lantsailera arduradunarekin harremanetan jartzea.

14. Akordio honen berri ematea udal Obra eta Zerbitzuak eta Kontuhartzailera eta Udaltzaingoiari.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoainen sinadura datan.

Idazkaria

Alkatea

